



ZERUKO ARGIA

ILLEROKO ALDIZKINGI EDERGARRIDUNA

AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

IV Urtea	1922'ko	Epaiia	39 Zenbakia
----------	---------	--------	-------------

XI'gr. Pio Aita Santu beria

AKILES Ratti Italia'n jaioa da, Desio izena duan Milan'go bafutiko efian. Bere ikastaroa Lonbardaen Ikastetxean eta gero Ikastol Buru Gregorio'taean egin zituan. 1879'an Apaiz egin zan.

Bere ikastaldiak akitzean Milan'go S. Pedro'ren Apaiz-gaitegiko Erakusle autatua izan zan.

Mila bederatziureun eta zazpigaen (1907) urtean Aita Santuaren Prelado izentatua izan zan. Milan'go Ambrosio santuaren elizako Kanonigoa.

1912'an Ambrosi'af Liburutegiko Buru ta garai berean baita Batikano'ko Liburutegiko Buru ere.

Mila bederatziureun eta amalauean (1914) Agoñaren 18'an Batikano'ko Kanonigo izentatua izan zan. Geroxago Protonotario Apostoliko.

Mila bederatziureun eta emeretziko Garagafilaen 6'ean Polonia'ko Nunzio edo Aita Santuaren Ordezko ta urte bereko Uztailaren 3'an Lepanto'ko Artzobispo Izenezkoa.

Lenago'ko urtean beñiz, Joñaila'ren 25'etik asi-ta Barsobia'ko Aita Santuaren Ordezko Ikustzaile izan zan.

Mila bederatziureun eta ogei ta bateko Joñail edo Apirila'ren 19'an Adamako Artzobispo Izenezkotako autatua izan zan.

Urte berean autatua izan zan Kardenal Apaizetako, «Sti. Martini in Montibus»ko Izenarekin eta Milan'go Artzobispo.

Orain gañera Konzilio'ko Alkartasunakoa, baita Elizaren Eginkizun Oi-ezenetakoa zan.

Otsaila'ren 6'ean autatua izan da Aita Santuen Aulkian jañirik, Eliza'ren Buru izateko.

Pio izena artu du. XI-gaen Pio deituko zaio.

Otoitz egin dezagun Elizarekin artaz esanez: *Jaungoikoak zaitu beza eta bizia eman bezaio, eta luean zorionekoa egin beza ta ez dezala utzi bere etsaien eskuetan.*»

ILEN BIRPIZTEA

Credo carnis resurrectionem. *Sym. Ap.*
Siñisten^{du} dut aragiaren birpiztea.



XEATUKO al didazu gaur gure siñismenaren beste egi pozgafi bat?—Baita, pozik: Zein i ai duzu?

—Zer aditzen duzu ilen edo aragiaren birpizteaz?

—Ilen edo aragiaren birpizteaz aditzen dut, gizon il guzien bigaŕen-go piztuera. Gizon guziak, il-ta urteen buruan befiz, edo bigaŕen aldiz piztu beaŕ dugula.

Orixe da Elizak guri siñisteko erakusten digun egia. *Siñisten dut, dio, aragiaren birpiztea edo bigaŕen piztualdia.*

Letran'go Eliz Batzaŕe Nagüsiak argiago dio: «gizon guztiak birpiztuko (befiz piztuko) dira bakoitza bere gorputzarekin.»

Ezekiel'ek ikusia

Jaungoikoak eraman zuan Ezekiel Igarle edo Profeta, ezuf leor, elkor-tuaz beterik agiri zan zelai batera. Ta galdetu zion: giza-semea, uste al duzu ezuf auek biztuko dirala?—Zuk dakizu, Jauna, erantzun zion. Eta esan zion: auŕera zazu ezuf auetaz: eta esan zaiezu: ezuf igafaŕak, entzun Jaunaren itza... Ara, nik sartuko dut zuen baitan gogoa ta biztuko zerate... Aŕen otsara ezufak mugitu ziran eta ezufak ezufagana bildu ziran, bakoitza bere bilgurara, «eta ikusi nuen eta ara zañaŕ eta aragia beren gañean jaŕi zitzaizkioten: eta zabaldu zan beren gañetik laŕua.»

Itz egin zion befiz Jaunak esanez: Auŕera zatzaie gogoai eta esan zaiozu gogoari (animari): etofi gogoak lau aize aldetatik eta aizeman il auei eta birpiztu bitez. Eta gogo edo animak sartu ziran aien baitan eta biztu ta tente jaŕi ziran. (Ez. 37)

Oŕa Jaungoiko berak ederki adirazirik auŕetik, azkeneko egunean gizon guziekin egingo duana ta gure siñismenak erakusten digun egia.

Adan'gandik asi-ta azkeneko egunerañoko gizaseme guziak befiz piztuko gera, gure gogo edo animak, bakoitza lengo gorputz berarekin bildurik.



Ontasunaren Ama

¿Nola gertatuko da ilen berpizte ori?

Ilen berpiztea Jaungoiko alguziadunaren indafez, gertatuko da, arentzat ez baita eziñik. (X-gaŕen Pio)

Jaungoikoak lufeko gauza askotan jafi dizkigu berpizte ofen irudi edo itxurak: Lufean eraindako aleak (pizkoŕ edo biak) usteltzean landare befia sortzen dute. Neguan galdutako ostoz udabefian befiz jazten dira zugatz edo arbolak. Ustez izotzakín galdutako lorea, bizitasun befiaz apaintzen da udabefian. Afak edo Jaungoikoaren txakufak, ilik bezala egoten dira ilabete batzuz, berak egin zuten ilobi antzeko saretartean, lenengo itxura guzia galdurik. Eta gero tximifika edo Jainkoŕo politena egiñik ateratzen dira.

Ondo begiratzen bada, dio Agustin Santuak, gizon guziak ezerezetik atera giñuzen miraria, aundiagoa da, berpiztuko gaituana baño; zalago baita ezerezetik gizon biziak egitea, noizpait bizi izan ziranak bizi eratzitzea baño; zalago dan bezala ezer ez danari izatea ematea, zarturik dagoana beritutzea baño.

Jesus'ek ogei ta emetzortzi urtez elbafi zegoan gizona sendatu zunean esan zien juduei: ilobi edo sepulturetan dauden guziak Jaungoikoaren Semearen obotsa (deia) entzungo duten ordua etofiko da ta aterako dira kanpora. Ona egin zutenak biztuko dira betiko bizitzarako ta gaiztoa egin zutenak ondatuak izateko. (Joan. V. 28.)

Jaungoikoaren Semearen oju ortara lufa ta itxasoa dardaratuko dira ta bakoitzak, berak iretxitako gorputz guziak emango dituzte. Ta bat-batean gogo edo anima bakoitzak arkituko du lengo gorputz bera-bera lengo osotasun berean eta berarekin batuko da, beñere geiago ez bereixteko.

¿Zergatik nai du Jaungoikoak gorputzak beriz piztutzea?

Jaungoikoak nai du gorputzak befiz piztutzea, animak ona edo gaiztoa gorputzarekin batean egin zuan ezkerro, oraindik berarekin saritua edo ziorkatua (kastigatua) izan dedin. (X-gŕ. Pio).

¿Gizon guziak era berean birpiztuko ote dira?

Ez, berdiñeza txoil aundia izango da autatuen eta galduen gorputzen artean, autatuen gorputzak bakaŕik izango dituztelako Jesukristo berpiztuaren gorputz zorionekoaren antzean, gorputz zoriontsuen bereixgafiak. (X-gŕ. Pio).

Zein bereixgariŕik edertuko dituzte, ba, autatuen gorputzak?


Autatuen gorputzak edertuko dituzten bereixgafiak auk dira. 1.^a *Nekegabetasuna*, onengatik ez dute iñoiz neke, min, gaitz, gose edo egafirik izango. 2.^a *Argitasuna*, onengatik argi egingo dute eguzkiak eta izaŕik bizenak bezala. 3.^a *Arintasuna*, onengatik aldatuko dira ezer nekerik gabe bat-batean zeruaren baztar batetik bestera. 4.^a *Sarkortasuna*, onengatik gorputzak ezer galdu gabe beste edozein gorputz gogoŕenak baŕena sartu ta igarotzeko bidea izango dute.

Galduen gorputzak nola izango ote dira birpiztu ondoan?

Galdeun gorputzak autatuen gorputzen bereixgafirik ez dute izango ta betiko galduen ezaungafi iluna ezaŕirik agiriko dute.

Intza'ŕ D. An. O. M. Cap.

«Jesus'engana Maria'gandik»



RANTZIN bizi izan zan Monfort'ko Grigñon Doatsuak, Zeruko Amaren egiazko zaletasunaz idatzitako liburuan, esaten ditu itz auek: «Jesukristo etofi zan lufera Mariagandik; Mariaren bidez izan beaf du ere, luñaren jabe.»

Azkeneko egunetan agertu beaf ditu Mariak, iñoiz baño geiago, bere indafa, jakintasuna eta efukitasuna: Efukitasuna, bekatarik gaiztoenak zuzenduaz; indafa, Jainkoaren etsaiak garaituaz; jakinduria, Jaunaren alde ari diranai zer egin erakutsiz.

¡A! ¿Noiz izango da Maria biotz guzien jabe? ¿Noiz egiñen ditu biotz oiek bere Semearen mirabe edo serbitzari zintzoak? Baño lenago, gauz ari-gaflak ikusi beaf ditugu... ¡Noiz elduko ote dira egun zorioneko aiek, anima guziak bere baitan sarturik, nolabait esateko, Maria bezal-bezalakoak egin dizezen, onela Jesukristo goratzeko ta maitatzeko!»

Gero, gure Salbatzale maitearengana itzulirik dio. «Zure eñeina betorkigunez, betorkigu lenbizi Mariaren eñeina, ¡Jauna!»

¿Ez ote dira gure egunok Mariaren egun oiek? Agitz zabaldu eta edatu da alabaña Jesus'en Amaren debozioa. Alde guzietan ari dira bere mirarizko Medala artzen; Iru Agurñariak goizean eta añatsean esaten ez dituanik ezta, kristau on samaren artean beñepin, eta bekatarik eta lagun gaizto askok ere eztute deboziotxo au uzten. Eta ¿zenbat eztira bide ontaz Jaunarengana itzuli? Noiz nai irakurtzen dira mirari ari-gaflak.

Beste alde batetik beñez, Jaunaren eñeina eta jabetasunak eñuti dagola ematen du: Ainbeste gaiztakerik alde guzietan...; baño gerta oi da, Elizaren garaipena egoten dala urbiñago, guzia galdurik dagola iduri duanean. Orduan agertzen da obeki, eta aditzera ematen du Jainkoak bere neufigabeko indafa.

Dabiñela bada munduaren inguruan Luzifer deabrua, katea askaturik bezala. Ezta deus: Jesukristo izango da luñaren jabe eta Eñege; eta eñegetasun, jabetasun au ari da etortzen, *sugearen burua zanpatuko zuala* esana dagon Maria guztiz garbiaren bitartez; beraz esan baitu Eliz Ama Santak: «Bakafik eman diezu eriotza Elizaren etsaiei.»

A. I. M. A.



AURTZO BATEN AMETSA

Bai da Galilea-aldean, etxe txiki bat, garbi-garbia, eta aiñ txuria, mendi-tontoreko elufan antzera, agertzen zaiguna.

Osto orlegiak ugari bere ate-ondoan, lore txuri-gofiak ere baditu tartean edefez apaintzen dutenak; abesti gozoak aitzen dira maiz-xamar, txori politak kabitxoak egiñik, alai bizi dira aldameneko tantaletan.

Pozgari oiekin inguraturik, beti alaitsu azaltzen da etxe-txuri maitagarria. Aberatsak dirala ez dirudi jabeak, baño ufeotsak ez dakañen biotz-pozak egiten du etxe txuri au berdin gabeko j. u. regia.

Atarian jostatzen dago zortzi bat urteko aurtxo zoragarria; aita arotza dala-ta berak ere aitararen antzera antolatatu nai du gauza andiren bat. Goguan dabilkic, oi bat egiteko asmo bizia. Gauzetan onenetakua ez alda iltzeko ordurako gaya antolatzea?

Zeruak bezelako urdiñ-urdiñak ditu begiak, ufeskuak ile kixkufak, ezpañak mafubi gofiak, arosak bere masalak.

Itz batian bera da zeruko aupa.

¿Zer da ori, Jose? dio andreak; eta biotzak zauriturik biak batera austeren dira, ikusten zutena umetxoaren eriotz-oroimena zala gogoratuaz.

Ensatzen da Jesus atsegiñezko ametsetik eta gurasoen naigabea ikustean ¿zer-gatik diote? zer-gatik negar ori maiteok? Ez al-zerate pozutuzten nere aitaren naia betetzeaz? Zure odolak, ama biotzekoa, eta zure izerdiak, aita, zabalduko dituzte gogof itxirik dauden zeruko ateak... Legortu malakoak, aldatu naigabe ori, eriotzak beraxek baño geiago samintzen-nautelako. Negafian jafaitzen du Jose Deunak, oso mindurik dago ama, aurtxo zerukoak beriz bigafen lo-aldian atsegiñezko ametsera jotzen du.

Elur tantoa.



EZKONTZEKO PRESTAERA



IX

Erlijio-gabebo Ezkontzak

II §



BAÑO gauza au ezkondu-ondorako uzten badezu ¡zure gaixoa! Garai-tua izango zera: zure siñismenarekin ala senařarekin beti bufukan ari beařa izango zera, ta ezkontzan zoriontsu izatetik oso ufuti egongo zera. Ezkondu-ondoan zure senařa onduko dezula amets egiten ba dezu, zure lotik laxteř esnatuko zera, zure ametsak ayenaturik ikusiko difuzu ta zure itxaropena, bete gabe. Gertaera ilunak pixka-banaka, Uriak zuaitz edo arbolen ostoz oriztak bezela, aterako dizkitzu; ta orduan zeofek ikusi-ta ikasiko dezu Jaungoikoa nagusitzat ezagutzen ez dan etxe batean ta askatutako grinařak etxeko bizitza ekaitz biuřtzen duten etxe batean, bizitzea zeñen gauza beltza dan.

Zuk aitatzen ziniñtun erlijio gabeko gazteak iru motakoak dirala esan deřakegu. Lenengoak dira bere siñismen edo fedea ezer galdu gabe, sakramentuetatik alde egin, bere oiturak garbi gordetzen ez jakin ta uts egite batzutan gaiztakeriz baño geiago, auleriz erori egin ziranak. Bigařena dira erlijioko gauzetaz ajolik etzaienak: eztira erlijioaren etsaiak, baño ajolagabeko gauzari bezelatsu begiratzen diote, andre-gauzari bezela ta erlijioak agintzen duana gaiztakeriz baño geiago utzikeriz ez dute egiten. Irugafen motan siñismenik gabeak, egiazki erlijio gabeak diranak jařiko ditut: oiek berez erlijio katolikoari alako ezin ikusi bat, ala egiazko gofotia diote.

¡Kontu gero azkeneko auekin batez ere! Oiek ezkondu ondoan berdin jazařtu edo persegitutako dute bere emazte ta umeen erlijioa oien biotzetik erlijioa kentzeko egiñalak egiñaz. Onelakoren batek, pamili katoliko batean sartu nai duanean, erlijioaren kontrako bere iritziak estaltzen ditu, bere siñismen-gabetasuna ezkututzen du, elizkoia dalako itxura egiten du ta emaztetzat nai duan gazteari batzuetan Mezara juaten laguntzen dio; dana andre-gaia bildurtu ez dedin ta senařtzat artu dezan. Baño ezkondu ondoan itxura aienatzen da, mozořoa arpegitik kentzen du senařak ta bere esan ta egintza-kin bere erlijio gabeko biotzaren ondoz erakusten du. Onela itxura egiten dutenak ez dira asko-asko, baño eztira ere oso bakanak. Ta ořetxegatik esaten dizut kontuz ibiltzeko onelako sarean erori etzaitezen. Jainkoak gordez zaitzala Elizaren etsai ta erlijio gabeko gizonaren emazte izatetik.

¿Ba al dakizu zergatik? Ona zergatik.


Gizon gaizto edo galdua
Jainko gabe, siñeskaitza,
Da beti senař gaiztua!
Gizon ona iñoiz ezta!

Ambrosio Anaia



Maria nekatsua

(Lizafa'ko Iñari Ak. ereskidetua)



O Ma - ri - a ne - ka - tsu - a ba - kar tal - di la - fi - an

mi - ñez zau - de be - te - rik gu - re - be - ka - tu - en ga - tik.

Je - sus zu - re Se - me - a u - tzi du - te or - tzi - rik

Zu - re - bio - tza ja - fi da gu - zi - a mi - ñez be - te - rik.

(Donosti'ar Jose. A. Ak. ereskidetua.)

Tan tum er - go Sa - cra - men — — tum

Ve - ne - re mur cer - nu - i Et an ti quum do - cu - men - tum

No - vo ce dat ri - tu - i Pres - tet fi - des Sup - ple -

men — — tum Sen - su - um de fec - tu - i A — men.



O Maria Nekatsua



Maria nekatsua
bakartaldi lañan
miñez zaude beterik,
gure pekatuen gatik.

2 Jesus zure semea
utzi dute ortzirik.
Zure biotza jafi da
guztia miñez beterik.

3 Bakafik utzi zaituzte
zure bakartaldian;
eldu gera zure gana
miñ bizi-aundiarekin.

4 Zu izanikan ere
zeruko Efegiña,
Andre guzien artean
zera saminduena.

5 Gure ama zeranaz geroz
otoitz egizu gutaz;
zure miñak jakiñik,
damuz gaude beterik.

6 Zuregana deiez gaude
aiez eta negañez
negañezko aran ontan
beti nekez beterik.

7 Zure biotz edeña
ongi miñez betea;
gure biotza garbizazu
zure esker guztiz sainduan.

8 Zure arpegi edeña
zeruko atsegiña
zeru guziak ikusten du
guzia miñez betea;

9 Zure begi edefak
zeruko argi alaia,
orain dauzka negafak
guziak minberatuk.

10 Zure bakartaldia
zeruak ikusirik
guzia beltz jantzi da
samintasun aundiakin.

11 Zure miñaldi aundiak
ezin adiraziak,
pekatari guzientzat
atsegin aundietakoak.

12 Gure itxaropen zera
eta beti izan zera
gure neke guzientzat
laguntzale aundia

13 Juan saindu ta Madalena,
Ama nekatsu ofekin
Irutasun sainduari
otoitz egizue gutaz.

14 Jesus maitazalea,
gure Erosle maitea,
gure neke guzietan
gure atsegin ona.

15 Zorioneko Bautista,
ekandun audietakoa,
zure zale guzientzt
aterpe aundietakoa.



Eliz-Ama garai oetan

A SPALDIAN gure Euskal-efi maite ontan entzun oi da «au ta ori ez da Elizak nai duan bezalakoa, ez da katolikoa,» edo «au ta ori edo onela pensatzen duana bakarik da katolikoa» jaldardi batzutan ere ta adimen askotan entzuten da «Elizak au ta ori nai du, izkuntz au edo ori bakarik nai



Eskalea beartsuaz erukiturik

du ta olako gauz amaika, askoren gogoak nastuaz ta besteenak atzeraz az.

Gogo batzuen lasatzeari ta beste batzuen jakiñeza kentzeari begiratuaz Gure Eliz-Amaren mamia, naiak ta aldaketak agertzera jartzen nazakizute

jagertze oetan Eliz ofek ber-berak erakutsi digunari ta egin oi duanari baka-fik lotuko natzayo.

Euskalefiko sinismena gure asaben sinismen bizi ori galbidean dakust: ¿nola ba? gure inguruan dauzkagun efien eraketa ta lagunarteak gora-bera dabiltz; jabetza bera zalantzan dago; gure efira ere oletako langileak ta uda igarotzera datorkigun atzeritafak olako gauza oyen aztarna batzuk ekafi dizkigute.

Beste aldetik Eliz-gizonak, askok beñepein ez degu ondo aditu geren egin beafa. Elizak ta eliz-gizonak berez ta lenbizi gizonen ta gizartearen soñ edo gorputzari ez dio begiratzen; gorputz ofen gogoa da gurea, gure begikoa; gogoaren onura nai degu, ori da «unum necessarium» beafezko bakafa guri agindu zaiguna. Elizaren eginbeafa aldakaitza, bañan ez egin-era: Jaungoikoa ta gizona dira gure egin-mugak, Jaungoikoa aldakaitza baña gizona oso aldakofa. Aldaketa oyek ikasi ta oiei al dan guztitan Jaungoikoa egokitu beaf diegu. Ara Eliz-gizonentzat ere bide befia: gizonen aldaketa ta bizitzak ikasi ta Jaungoikoaren Eliza, obeto biak batu ditzagun: bitartekoak gera.

IZIAR

Bizente Doatsua, Aipaizurena ta Lekukoa

II



AGINTARIAK ordea ustegabeko erantzun au artzean, su ta gar egiñik, Bizente Doatsua burni gorizko oe batean etzin, burni goriz alde guzietatik estali, ta su aundi bat oepean egin erazi zuan, berealaxe oso efe ta ilko zala-koan.

Jaungoikoa gure alde izan ezker, zertako dira gizonen eta deabruen asmo gaiztoak?

Gure Doatsuak ordea, bere aragi-efe koipeaz su aundi ura geiago piztutzen zuan bitartean, bere begiak Zerurontz jaso ta oso pozik eta alai Jesukristo agurtu ta goratzen zuan. Eta inguruko siñisgabeak au ikustean, oso afiturik, esaten zuten: Gizon onek egi-egiz bere Jaungoikoaren laguntza berezia euki beaf du, gizonak berez ezin dezake olakorik egin da.

Agintariak orduan erabaki zuan, Doatsu au berealaxe giltzape ilun-ilun batean sartzea, ta antxe kate gogofez lotu ta burni zofotzen gañean etzin-da, il arteraño eskutuan eukitzea, beronen afigaritasunak ikusirik jainko gezufezkoen agurtzale guziak Jesukristoren agurtzale egingo ote ziran bildufez. Eta giltzape ilun-ilun artan berealaxe sartu zuten eta kate gogofez lotu ta burni zofotzen gañean etzin zuten. Baña garai bere-berean, zerutar argitasun eder-eder batek giltzape ilun-ilun ura oso argitu zuan; Aingeruak soñu go-go-ozoak jotzen eta Jaungoikoaren aunditasunak abestutzen asi ziran;

Doatsuaren zauri guziak oso sendatu ziran, bere kate gogofak ufatu ziran, bere azpiko burni zofotzak afosa atsegingafi biurtu ziran, bere soñia usai gozo-gozoa botatzen asi zan; eta era onetan, giltzape iun-ilun ura, lorategi zoragafi egiñik geratu zan. Eta ainbeste afigafitasun ikustean, giltzape-zai guziak agintepeko jainko gezufezkoak utzi ta Jesukristoren agurtzale egin ziran.

Agintariak orduan, ustegabeko erabaki bat artu zuan, au da, Bizente Doatsua sala aundi batera eraman eta antxe oe bigun-bigun batean jartzea, afosaz buru-eraztundutzea, jainkotzat artu ta agurtzea, deabruak adierazirik noski, bestela irabazi ezin zuana, onela irabaziko zualakoan.

Baña gure Doatsuonek, bere burua oe bigun-bigun artan ikusi zuan garai berean, Jesukristori eskatu zion, afen, ainbat laistefen Beragana eramateko, Berarekin batean Zeruan betikotasun guzian bizitzeko. Ta eskaera au egitean, berealaxe, ingurukoak gutxien uste zutenean, bere azkeneko arnasa gozo-gozo eman zuan, bere gogo zorionekoa, Zeruko betiko atsegin lekura joan zan, eta bere Soñi-il Agurgafia usai gozo-gozoa botatzen geratu zan, 305 gafen urteko Ilbeltzaren 22'n.

Agintari biotz gogofak orduan, oso asafeturik, Bizente Doatsua beti garailari irten zalako, Doatsu onen Soñi-il Agurgafia nafazka kanpora eramanda, baso afo aundi batera bota erazi zuan, antxe basa pistien eta egazti aragi zaleen janari izango zalakoan. Baña Jaungoikoak, bele aundi baten bidez gorde zuan basa pisti eta egazti guzietatik.

Agintariak orduan, oso amofaturik, afo aundi bat lepoan jafita itxas zabalera bota erazi zuan, antxe, itxas ondafean, afaien janari izango zalakoan. Baña Jaungoikoak itxas-oleen bidez, itxas baztafera eraman zuan, eta Kristau jaierratsuak begiramentu aundiaz artu ta lurperatu zuten, Balentzi ondoan, bere Agurtegi edefa oraiñ arkitzen dan leku berean.

Doatsu aundi ta Lekuko argidotar onen Il-efia laistef egin zan oso ots aundikoa, Jaungoikoak bertan egin zituan egintza aundi ta afigafiagatik.

Aita Eskoriatza





BERRIAK

Iĭ dan Benedikto XV'ri giza-irudi³bat.

Iĭ dan Benedikto XV'nak ba du giza-irudi edo estatua bat, Konstantinopla'n.

Eta ez dira katolikoak giza-irudi ori egin dutenak baizik ango musulman'ak, judutafak, ta protestantiak.

Ango Sultan ta eŕeĝe Egipto'ko ordezkoak, asmatu zuten ori.

Ea giza-irudi azpian leitzen dana:

Mundu guziko geŕa izugarian zan Aita Santu Benedikto XV'ari.

Aberĭ edo Erlĭjioari begiratu gabe eŕi guztien ongĭlea izan danari.

Eskeŕ-onez—Goiz-eŕiak (Oriente). 1914-1919

Idazti txafak sutara.

Excelsior Paris'ko izpaŕingi edo periodikuak dionez, Neukoelen'go (Berlin) alkateak, asmo gogof eta egokiak artu ditu idazti ta liburu txafak ondatzeko. Gazteak galbidean jartzeko baĭo gauza eztirala-ta, eŕiko plazan bildu ta mordo galantak eŕe dituzte.

Befogei mila baĭo geyago eŕe dituzte eŕiko jendien aŕean. ¡Edeŕki egiĭa!

Gizon oiek egin dutena, emengo Euskal-eŕian zabaldu diran izpaŕingi ta idazti zikiĭaz egingo luken bat agertuko balitz!... Gauza edeŕ bat egingo luke. Baseŕitaŕen bat eo batek esango lukena: Esneari, iĭori kalterik ez da karkionari, ur ŕaĭfo bat bota diogula, ta eŕekara bota beaŕ degula, ta gogoak ta kristauen animak usteltzeko bakaŕik diran idazti ta liburu zikiĭak, zergatik ez sutara bota...?

¡Garbitasunaren alde!

Kordoba'ko (Uruguay) Eliz Batzafak, eskutitz bat beaŕ-beaŕezkoa zabaldu du:

«Datoŕen 1922'ko urte ontan, eskola katolikoetara joaten diran neska guztiak, edozein urtekoak izan aŕen, galtzerdi luziak jantziko dituzte, besoak estaliak eta lepoko alderdiak agiri ez dituztela.»

Gaĭnera agindu goŕia eman diote, eskola guztitako maestraĭ, ongi betetzeko Eliz batzafak agindu duna.

Buenos-Aires'en ere gogof asi dira moda'ren kaltez eta garbitasunen alde.

Au ere ez ote da zerbait?.

Ameriketako protestante'en apezak ez dute beren eŕiko jendea nekatu

nai. Zer asmatu ba? Nueva-York'en protestante'en apaiz batek, bere etxeko gela txiki batean, aririk gabeko telefono bat jafi du. Gero igandean, bere elizako apaiz ta kantari edo abeslariak, barne artan bildurik, ofizioak an egiten dituzte ta predikatu ere bai.

Eta telefono ofen bitartez, mila protestantek aditu dute bai predikazioa baita kantuak, beren etxetatik, eta itxasoko ontzietan edo (baporetan) ziranak ere bai. ¡Ofen efax sartu al'balitezke zeruan!

ZINEA AMERIKETAN

Ipañ-Amerikako Katolikoak aspaldi asiak ziran *zine* zikiñai gogof egiten ta asmo ori oso ongi artua da orian baztef guzi ayetan. Katoliko eztiran paper asko ere asi dira *zine* ayen aurfka itz egiten.

Au dala-ta *zine*-zefenda-egile ospatsuenak batzafe bat izan zuten eta erabaki oso ontsuak artu zituzten berartan.

Zine-zefenda lizunak eta gaiztakeria maitarazi egiten dutenak ondatzea erabaki zuten: lapufeta erakutsi ta erlijioa ostikatu besterik egiten eztuten *zineak* ere bai.

Erabaki oek alde guzietan begiratzten balituzte joi zein on aundia ekafiko lukete!

Ta gure erian, Euskal-erian?

1921 ta 1922'ko Eun'urte Erlijiosoak.

1921'an: Domingo Santua ta Asis'tar Frantzisko Santuena. Irugañen eun urteak.

1922'an: Neri'tar Felipe Santuaren, Madrid'tar Isidro, Loyola'tar Iñazio, Jesus'en Teresa'en kanonizazio'na. Sales'tar Frantzisko Santuen eriotzarena, Jabier'tar Frantzisko Santuarena ta Kaputxino zan Simaringa'tar Fidel Santuarena. Ta azkenik «Propaganda Fide'n» Alkartasunena.

Gauza egokia.

Poitiers'en irakurgai edo letura-gela jafi dute. Sari txiki txiki, baten bitartez, efi artako guztiak sartu litezke gela artan ta an arkitzen dituzte toki guztitan azaltzen diran aldizkingi katolikoak.

Ikasbide edefak.

Altsasutik—«Umetasun Deuna» (Santa Infancia). Urte befi egunian «Umetasun Deunan» elkaturik bizi diran 400 ta geiago ume ta gaztetxoek egundañoko jai ikusgafia Kaputxinoen elizan egin zuten.

1920 gañengo Lorian elkartasun au jafi zan. Ordutik oraindano 1421 Ptz. eman dituzte siñismen gabeko umetxoak bataioa, bizitza eta aziera ona izan dezaten.

Altsasuko gaztetoak, misiolarien laguntzale txintxoak ez ote dira?

«Beartsuen ogia» Ara befiz Antonio Deunak Kaputxinoen elizan daukan kutxan zenbat Pezeta azkeneko urte oietan sartu diran: 1917'an gañenian 201,30 Ptz. 1918'an 290,60 Ptza. 1919'an 269,55 Ptza. 1920'an 295,48.Ptza.

1921'gañen urtearen:

Ibeltzan 59,60 Ptz. Otsailan 39,25 Epailan 62,60 Jofailan 35,95—Ofailan 39,50 Garagarailan 22,90 Uztailan 19,90 Dagonailan 44,10 Ago-

